



mundukide
f u n d a z i o a

MOZAMBIKEKO KREDITUAREN HISTORIA

Mundukideren Mozambikeko kredituaren historia

Atzera eta Aurrera begira

Aurkibidea

1	Sarrera	2
2	Hastapenak	2
3	Kreditu sistemaren garapena	4
4	Dirutako kredituak Marrupan izandako eragina	6
5	Hurrengo pausua	6

1 Sarrera

Aurtengoa Mundukideren Mozambikeko 13. mikrokreditu kanpaina izango dela eta egoki iruditu zaigu egindako ibilbidearen azterketa bat egitea.

2 Hastapenak

2002. urtean Mundukide Marrupan lanean hasi zenean gose egoera larri bat aurkitu zuen bertan. 1999-2000, 2000-2001 eta 2001-2002 urteetako uztak kaxkarrak izan ziren eta 2002ko lehen hilabeteak oso gogorak izan ziren baserri askotan. Mundukideko taldea Marrupara otsailean iritsi zen eta apirilean arto berria biltzen hasi ahala egoera lasaitu bazen ere begibistakoa zen baserri askotako uztak ez zela urtebete irauteko nahikoa eta zer edo zer egin ezean 2002-2003an egoera bera errepikatzen zela zihoala.

Hilabeteak eman genituen Mundukiden batean eta bestean galdezka, egoera horren zergatia ulertu nahian eta azkenean abuztu ingururako egoera ulertzera iritsi ginelakoan geunden. 2001-2002 tarteko goseak epe motzeko eta luzeko kausak, biak, zituen.

Epe luzeari zegokionean, gure ustetan arazoaren funtsa zera zen: nekazal produktuentzako merkaturik ezean famili gehienek jateko behar zutena eta ez gehiago ekoiztea zutela helburu bezala (zertarako egin gehiago, hura erosteko eroslerik ez badago?) eta azterketara bost bat lortzeko asmoz doan ikasleari sarri gertatu ohi zaion bezala, nahikoa da edozein ustekabe txiki, bostetik behera geratzeko. Alegia juxtu jateko behar edo pittin bat gehiago egitea hartuz gero helburu bezala nahikoa da arratoi edo termiten ereindako haziaren zati bat jatea, aste honetan edo hartan euri gehitxo edo gutxitxo egitea, artoa handitutakoan haize bolada batek zati bat botatzea... nahikoa da edozein gauza txiki uztak espero zena baina txikiagoa izateko eta ondorioz hurrengo uztak bitartean urte osoan zer jan nahikoa ez izateko etxean.

Eta aldi berean egoera hori ekiditeko nekazariak jateko behar duena baino dezente gehiago egitea erabakiz gero, min ematen du urtea joan eta urtea etorri soberan egindako hura erosle faltan usteltzen ikustea; giltzurrunetako minari bihotzekoak gehitzen zaio kasu horretan!

Epe motzari zegokionean arazoa beste bat zen: Marrupan ohikoa zen herrixka bakoitzean nolabait seguru edo banku funtzioa betetzen zuten dozena erdi edo dozena bat nekazari izatea. Gehienak edadekoak eta gainontzekoak baina soro handiagoak eta uztak handiagoak izanda ere ia deus saldu ohi ez zutenak. Gazteagoen hitzetan "eskujaboirik ere erosi gabe bizitzen agoantzen dutenak". Hauek beti zuten ganbaran zer edo zer eta bizilagun edo senitartekoak janaria behar izanez gero bazekiten halakoren etxean egun bat edo bi lan egin eta etxeko apurua gainditzeko nahikoa janari lortu ahal izango zutela. Arazoa zera zen; hiru urtetan jarraian uztak txarrak izan eta gero hauek ere ez zutela deus eta 2001-2002 euri sasoiari Marrupako jendea ehun kilometro eta gehiagoko distantziak ere egin zituela nonbaiten lan pixka baten trukean janariaren bat lortzeko.

Argi zegoen zerbait egin behar zegoela, baina inork ez zuen gerra garaiko "emergentzia laguntzara" itzuli nahi. Urte asko eman zituen Marrupako jendeak gobernuaren eta kanpo laguntzaren dohaineko janak jaten, dinamika hura gaindituta zegoen eta ez zen atzera dependentzi hartara itzultzea komeni.

Horren trukean, krisiari erantzuteko bertako sistema tradizionala laguntzea erabaki zen.

Egoera larriena zuten herrixkatan ohiko urtetan seguru edo banku funtzioak egin ohi zituzten nekazari haiek aurkitu eta haiei janaria eman zitzaien maileguan. Janari hura ez zen beraiek etxean jateko, etxaldera lan truk janari eske etorritakoei erantzuteko baizik. Modu horretan nekazariak ere soroak zabaldu eta uzta ona izango zuen eta programari, honek maileguan emandako janaria itzuli ahal izango zion. Beharra zuenak berriz, etxetik gertu izango zuen lan truk zer jan nola lortu. Mandioka eman zitzaien eta bakoitzak nahi zuen produktuarekin (artoa, kakahuetea, babarruna...) itzuli zuen.

Irudia 1: Mandioka deskargatzen

Jauzi handia berriz laugarren urtean izan zen 2005-2006. Antolaketa aldatu zen programarentzako kudeaketa errazteko eta parte hartzaile kopurua 307era igo zen. Hortik aurrera urtero kredituak gora jo zuen eta 2008-2009 sasoian parte hartzaile kopurua 403koa izatera iritsi zen. Eta dirutan ere asko handitu zen kreditua: 2003-2004ean 109 parte hartzailek guztira 44.000MZN jaso bazituzten maileguan (gutxi gora behera 1.700 euro) 2008-2009an 403 partehartzaileek 1.140.000MZN (31.500 euro) jaso zituzten. Partehartzaileak laukoiztu eta kredituaren balio osoa 18 bider handitu zen! Eta kopuruak handitu ahala gainera itzulpen tasa hobeagoak lortu zen 2003-2004ko %82tik 2008-2009ko %92ra iritsiaz.

2003-2004tik 2008-2009ra mailegu sistemak eboluzio handia izan zuen beraz eta 2008-2009rako programak nekazarientzako mailegu sistema egoki bat garatua zuela esan daiteke. Bakarra gainera, Mozambikeko iparralde osoan ez baitago antzeko beste deus. Oso mikrokreditu gutxi dago Mozambiken eta ia guztia merkataritzara bideratuta, nekazaritzarako deus ez dagoela esatea posible delarik. Eta urtea joan eta urtea etorri %90eko itzulpen tasak dituzten mikrokreditu sistemak ere oso gutxi dira (Mundukide dagoen bi probintzietan ez dago itzulpen tasa hori duen beste mikrokreditu sistemarik).

Irudia 3: Diru kreditua jasotzen



Nota: 2011ko azaroan diru kreditua jasotzen Namarrenkako herrixkan (Marrupa).

Urte hauetan landutako beste gai bat emakumeen parte hartzearena izan zen. Horrela 2003-2004 sasoian emakumeek kreditu guztiaren %2a bakarrik jaso bazuten, 2012-2013 sasoian kreditu guztiaren %54a jaso dute. Prozesu hau pixkanaka egin da, pazientziaz baina etenik gabe.

Garatutako mailegu sistemak duen erakargarritasunaren seinale da 2011z gero Mozambikeko mikrokreditu erakunde nagusietako batekin programak duen elkarlana. Elkarlanaren helburua zera da: Amoderrek Mundukidek garatutako metodologia gertutik ezagutzea eta beharrezko moldaketak egin ondoren, Mozambikeko beste probintzietara zabaltzea (Amoderrek Mozambike osoan egiten du lan).

4 Dirutako kredituak Marrupan izandako eragina

Mikrokredituaren eboluzio hori Marrupan gertatu den beste aldaketa baten laguntzaile izan da.


Funtsean, nekazariak baserriko lana janaria lortzeko bakarrik ez, dirua lortzeko modua ere izan daitekeela aurkitu dute. Nolabait kreditua dirutan itzuli beharrak nekazariak merkatuaren bila bultzatu zituen. Nolabait ondoko galdera txertatu zuen nekazarien buruetan: “Beti egin izan duguna egiten jarraituko dugu (artoa, babarruna, kalabaza...) edo dirua emango duen gauza berri bat egiten ere hasi behar dugu?”

Galdera horri lehen erantzuna 2005-2006 urtean aurkitu zioten eta ondorengo lauzpabost urtetan tabakoa izan zen galdera haren erantzun nagusia. Baina ondoren jarrera hori orokortu egin da eta orain baratzeako produktuak, sesamoa, arroza... hainbat produktu dira nekazariak saltzeko egiten dituztenak.

Hain da nabarmena aldaketa non Mozambiketik gobernuak hamar urtetan behin herrialdeko nekazaritzaz egiten duen azterketan ere ikus daitekeen. Gobernuaren azken bi azterketak 1999an eta 2009an egin zituen. Bada bi urte horietako egoera aztertuz gero, garbi ikusten da, Marrupako distrituan janaritarako bakarrik egiten den nekazaritzatik, janaritarako eta dirutarako egiten den nekazaritza mistora aldaketa handia egon dela. Handia bakarrik ez, datuek erakusten dutenaren arabera Niassa probintziako gainontzeko distrituetan izan dena baino handiagoa izan da aldaketa hori Marrupan. Zehazki merkaturako ere ekoizten duten nekazarien portzentaia 11 puntu igo da Marrupan (Niassan orokorrean 5 puntu igo da epe berean) eta merkaturako ere ekoizten dutela esaten duten nekazarien portzentaia handiena duten distrituetan Marrupa hamargarrena izatetik zazpigarrena izatera igo da.

Eta bada oraindik interesgarriagoa den puntua ere. Izan ere nekazariak, jateko ez, saltzeko diren produktuetara lanordu gehiago bideratuta ere gosea Marrupan handitu ez txikitu egin da. Hori nekazariak eurak esaten dute, baina informazio iturri objektiboagoa behar izanez gero hori bera erakusten duten Marrupako monjek duten desnutrizio zentroko datuek: 2006tik 2010era umeen desnutrizio kasuak %30ean jaitsi dira.

Irudia 4: Desnutrizioarekin lotutako kasuak



Nota: Grafikoan Marrupako monjen umeentzako desnutrizio zentruan hilero izandako kasuak ikus daitezke. Datuak 2006ko urtarrilaz gero 2010eko abendura bitartekoak dira.

5 Hurrengo pausua

2008-2009rako garbi zegoen Marrupako nekazaritza eraldaketa prozesu sendo batetan zegoela. Nekazariak ez zuen zertan autarkia osoan janaritarako bakarrik lan egiten zuen pertsona izaten jarraitu beharrik. Baserria izan zitekeen janaria bakarrik ez; arropa, eskola liburuak, bizikleta eta bestelakoak erosteko dirua emango zituen zeregina.

Baina programa, mikrokreditua sendotzen zen aldi berean bazez beste lan ildo bat lantzen. Merkatuan salmenta ona zuten produktuak nekazariak artean zabaltzen zebilen. Lan ildo hau 2005ean hasi zen 25 nekazariarekin baratz produktuak ekoizten eta azken urteetan oso tamaina

handia hartu du, milaka nekazariarekin hainbat produktu ezberdinetan lan egiten delarik (baratzeko produktuak, fruitu arbolak, sesamo eta arrosa, eta abar.)

Lan ildo berri honetan aldaketa teknologikoa bultzatzen ari da programa. Hala nola baratzeneko ureztapen sistemak, arrosean uraren kontrolerako azpiegiturak, arrosean bi gurpiletako traktoreen erabilera, ongarrien erabilpena, mango eta laranja arbolak txertaketa, eta abar. Oso teknologia xumeak dira, baina orain arte dagoenarekiko aurrerapen nabarmena suposatzen dute.

Baina hobekuntza hauetako askok inbertsio bat eskatzen dute nekazariaren aldetik (letxua hazia, ongarria, traktorearen alogera, ur kanala egiteko materialak...). Eta inbertsio hori egiteko programak metodologia berriak erabili ditu.

Kontutan izan behar da dirutako mailegua gehien bat lan-esku kontrataziorako erabiltzen dutela nekazariak (garai batetan janari truk egiten zen lan puntualaren eboluzio bat da). Beraz diru maileguak asko dinamizatu du Marrupako nekazaritza, nekazariak merkatura begira ipini ditu, baina ez du berez aldaketa teknologikorik ekarri.

Irudia 5: Eraldaketa teknologikoa




Nota: Beste hainbaten artean ureztatzeko motobomba txikien erosketa eta lurra lantzeko bi gurpildun traktore txikien alogera finantzatzen dira.

Aldaketa teknikoa nekazal extensio sistema baten bidez bultzatzen ari da programa, eta eskema horren barruan inbertsioetarako maileguak daude (motobomba erosteko, bi gurpileko traktorea alokatzeko, etab.)

Horrela, azken urteetan dirutako mailegua baina insumo eta zerbitzu mailegu hau indartzen gabilta Mundukiden, eta honen bidez eraldaketa ikusgarriak gertatzen ari dira, guztietan handieran ureztapen sistemen ugaritzea delarik.

Aurrekoari Mailegu Finantzario eta berriari Mailegu Teknologiko deituaz ondorengo taulan ikus daiteke biek hasieratik hona izandako eboluzioa.

Irudia 6: Mailegu Finantzario eta Teknologikoaren eboluzioa



Nota: Datuak ez dira Marrupakoak bakarrik, Mozambikeko lau programetakoak baizik (Majune, Marrupa, Balama eta Montepuez).

Datorren urtetarako asmoa Mailegu Teknologikoa indartzen jarraitzea da. Batez ere ureztapenaren erabilera zabaltzeko asmoz.